

.../2021 Foru Dekretua,arenkoa, azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horrek sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen du.

Azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren bidez, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua onetsi zen, testu bakar batean finkatu zen Nafarroako Osasun Publikoaren Sistemak sexu- eta ugalketa-osasunaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuen zorroa, eta osasuna eta sexu-heziketa sustatzeko jarduerak ere antolatu ziren.

Foru dekretu horren 4. artikulua Nafarroako sexu- eta ugalketa-osasun arloko zerbitzuen zorroa aurreikusten du, eta haren 9. puntuan ezartzen da zer zerbitzu sartzen den laguntza bidezko giza ugalketaren barnean. Puntu horretan, laguntza bidezko giza ugalketaren tratamenduak aurreikusten dira sexu bereko bikotekidea duten emakumeentzat, baldin eta betetzen badira aplikatutako teknikaren irizpide orokorrak eta berariazkoak, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritakoak, indikazio terapeutiko onarturik frogatu beharrik gabe. Orobat, laguntza bidezko giza ugalketarako tratamenduak aurreikusten dira gizonezko bikotekiderik ez duten emakumeentzat, baldin eta betetzen badira aplikatutako teknikaren irizpide orokorrak eta berariazkoak, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritakoak, indikazio terapeutiko onarturik frogatu beharrik gabe.

Ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legeak, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoak, 18. artikuluan ezartzen du ezen, LGTBI+ pertsonen ugalketaren eta genitalen esparruko osasun laguntzari dagokionez, bermatuta egonen dela laguntza bidezko ugalketako teknikak jasotzeko aukera eta horien

onuradun izanen direla haurdun gelditzeko gaitasuna duten LGTBI+ pertsona guztiak eta haien bikotekideak, berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko araubidean.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 14ko 7/2019 Foru Legeak, 51.9 artikuluan, osasun arloko jarduketaz diharduelarik, xedatzen du Nafarroako Gobernuak bermatuko duela emakumeek eskubide osoa izan dezatela giza laguntza bidezko ugalketako teknikak eskuratu ahal izateko, edozein direla ere beren egoera zibila, sexu-orientazioa, jatorria edo identitatea.

Horrenbestez, ikusten da, alde batetik, Nafarroako sistema publikoaren zorroak laguntza bidezko ugalketarako tratamenduak bakarrik aitortzen dizkiela sexu bereko bikotekidearekin bizi diren emakumeei, baldin eta urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritako teknika aplikatuaren irizpide orokorrak eta berariazkoak betetzen badituzte, eta, bestetik, gizonezko bikotekiderik ez duten emakumeei emailearen gameto bidezko intseminazio artifizialaren teknika bakarrik aitortzen zaiela (eta ez in vitro ernalketa), baldin eta aplikatutako teknikaren irizpide orokorrak eta berariazkoak betetzen badituzte.

Alabaina, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 14ko 17/2019 Foru Legeak emakume guztiei aitortzen die eskubide hori, haien egoera zibila, sexu-orientazioa, jatorria edo nortasuna edozein delarik ere, nahiz eta baden nolabaiteko zehaztapenik eza, ez baita zehazten zer erabiltzailek izanen luketen laguntza bidezko ugalketaren arloko prestazioetarako eskubidea. Hala, prestazioaren eskuragarritasuna zehaztu gabe geratzen da, lege-esparru zabalagoa baitago Zerbitzuen Oinarrizko Zorroa arautzeko laguntza bidezko ugalketa-tekniken arloan. Izan ere, teknika horiek eskuratzeko irizpide orokor batzuk

ezartzen ditu, beste muga batzuk adierazten dituztenak, hala nola gizonaren emakumearen adina eta abar, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduaren arabera.

Kontraesana egonik 17/2019 Foru Legearen eta Nafarroako Zerbitzuen Zorroaren artean, eta bermaturik geldi daitezten ekitatearen eta berdintasunaren printzipio konstituzionalak, aldatu beharra dago azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua, zeren, emakume bakarrek gainerako pazienteen baldintza beretan jaso ditzaten ugalketa-osasunaren arloko prestazioak, zerbitzuen zorroan sartu behar baita prestazio hori, berdintasunaren eta ekitatearen irizpideak oinarri hartuta.

Horiek horrela, Osasuneko kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluak adierazitakoari jarraikiz, eta Nafarroako Gobernuak ...an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. 4. artikuluko 9. puntua aldatzen da azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baita sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua. Hona hemen idazketa berria:

"9. Laguntza bidezko giza ugalketa.

Laguntza bidezko giza ugalketan zerbitzu hauek sartuko dira:

- a) Gizonen nahiz emakumeen antzutasun edo ernalezintasun azterketak
- b) Antzutasun edo ernalezintasunaren tratamendua
- c) Laguntza bidezko giza ugalketarako tratamenduak, helburu terapeutiko edo prebentiboa dutenak eta egoera berezi batzuetan: enbrioien hautaketa hirugarrenen

tratamendurako eta gametoak edo aurrenbrioak gordetzea erabilera autologo atzeraturako, medikuen indikazioaren ondorioz. Laguntza bidezko giza ugalketaako tratamenduetan teknika hauek daude sartuta: intseminazio artifiziala, in vitro ernalketa, aurrenbrioien kriokontserbazioa eta transferentzia, gameto edo aurrenbrioien kriokontserbazioa norberak geroago erabiltzeko, hazia garbitzeko teknikak infekzio biral kronikoen transmisioaren prebentziorako, eta enbrioak ezarri aurreko diagnostiko genetikoak.

- d) Laguntza bidezko giza ugalketarako tratamenduak sexu bereko bikotekidea duten emakumeentzat eta bikotekiderik gabeko emakumeentzat, baldin eta betetzen badira aplikatutako teknikaren irizpide orokorrak eta berariazkoak, urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritakoak, indikazio terapeutiko onarturik frogatu beharrik gabe.

Azken xedapen bakarra. Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.